

## Areatzan andren historiaren dokumentala egingo dabe

12. orrialdea

## Arratiako Musika Eskolako ikasle ohien kontzertua 3an

25. urteurrena ospatuteko hainbat ekitaldi antolatu ditu musika eskoleak. Hurrengo hilaren 3an, Igorreko Kultur Etxean arrastiko zarpiretan izango da eta musika eskolako promozino desbardinatoko ikasle izandakoak kontzertua eskeiniko dabe. **13. orrialdea**



## Txikonek Deia "Euskadiko enbaxadore" saria jaso dau

10. orrialdea

# begitu

TOKIKOM

arratia ubide zeberio

# 159

2012ko martiaren 1a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Lan aldarrikapenak martiaren 8an

Gai horren gaineko berbaldiak ardatz dauan egitaraua prestatu dabe arratiarrak.

**E**makume Langilearen Nazioarteko Egunean, lan munduan gizonak eta andrak bizi daben desbardinatasuna, hau da, andren diskriminazioa salatuko dabe Arratiako talde feministak eta andra taldeak. Holan, martiaren 6an, Nekane Juradok Lemoan andrak ekonomian izan daben ekarpen ezkutuz egingo dau berba eta Loredi Salegik lan produktibo eta erreproduktiboaren gainean Artean hilaren 7an. Egun berean, Igorren, Isabel Gonzalok Europako nekazal politikak zelaz eragiten deutseen andra baseritarri azalduko dau eta martiaren 9an Areatzan, Marian Ver-

dek gogoratuko ditu orain hamarkada batzuk andrak Firestoneen egin eben aldarrikapenak. Gainera, aurten, Arratian Euskal Herriko andra baseritarren lehenengo topaketak antolatu dira. Martiaren 8aren inguruan, honek be. Aitzekoak be badira, Arratiako andren II. Mendi Martxea, aurten Belatxikieta izango dana eta urtean zehar Areatzako Emakume Foroaren ekimenez, Areatzako andren historia kontetako egingo dan dokumentala. Diman be, hilaren 16an, "Dimako Andren Memoriaren" topaketen ikusentzunezkoaren aurkezpena egingo dabe udaletxean. **5. orrialdea**

**MARTXOAK 8 EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA**

**M 5-18 Igorreko Lasarte Aretan "Emakume baserritarrak"** Argazki erakusketa

**M-6 Lemoako Jubilatuen Etxeko aretoan 19:30**  
"Euskal emakumeek ekonomian izan duten ekarpen ezkutua" Nekane Jurado

**M-7 Arteko kultur Etxean 18:00**  
"¿Realmente el trabajo reproductivo, no es un trabajo productivo?" Merienda-etzabaida. Loredi Salegi

**M-7 Igorreko Kultur-Etxeko erakusketa aretoan 19:00**  
"La política agraria discrimina a las mujeres" Isabel Gonzalo (Etxalde taldea)

**M-8 Igorreko Kultur Etxe aurrean 19:00 KONTZENTRAZIOA**

**M-9 Dima 19:30 Pelikula "En un lugar del corazón"**  
21:00 Poteoa plazatik - 21:30 Afaría Artaungo Aspurun eta dantzaldia DJ Xaibor-ekin

**M-9 Zeanuriko Jubilatuen taberna 21:30 Afaría**

**M-9 Areatzako udal aretoan 19:00**  
"Reivindicaciones de las mujeres trabajadoras de Firestone" Marian Verde + Iuntxa

**M 10-11 Igorreko Lasarte Aretan**  
"La fuente de las mujeres". Film emanaldia

**M-11 Dimako plaza 09:00 EMAKUMEEN II. MENDI MARTXA, ARRATIAN**  
Belatxikieta (3 ordu). Amaitzean Iuntxa

Martiaren 8a inguruan antolatu diran ekintzak.

### ARTEA

## Aurrekontuak ez dira onartu

EAJ-PNVk egindako aurrekontuen proposamena bozkatu eben zezeilaren 22ko osoko bilkuran. Aurrekontu honek aldeko 3 boto izan zituan, EAJ-PNVkoak, eta 4 boto kontra, Bildu eta Aldatuzeneoak. Proposamenak ez eban aurrera egin eta 2011ko aurrekontuak luzatuko dira. **6. orrialdea**



### BIZKAIA

## Bizkaie!-k hamar urte

Aurtengo udabarian Bizkaie! agerkari elektronikoak hamar urte beteko dauz, BEGITUk legez. "Bizkaieradunak asko gara, pentsetan doguna baino gehiago eta horreek guztiak bizkaiera darabilen komunikabideak merezidu ditue, izan be, globalizazioaren aroan lekuan lekuko gauzak, euskalkiak, tradizioak eta bestelakoak gero eta indar handiagoa daukie" dino Koldo Isusi Bizkaie!-ren zuzendariak. **8. eta 9. orrialdeak**



### IGORRE

## Mihiluze Txapelketea prest!

Martiaren 10ean hasiko da Igorreko Euskera Planak antolatuta Mihiluze Txapelketea eta urri bigarrenaren 22an INBIU egunean izango da final handia. Izena emoteko esku-orriak bananduko dira tabernetan, komertzioetan, udaletxean, kiroldegian eta Kultur Etxean. Fitxea ebago eta Igorreko Kultur Etxean entregau behar da martiaren 23a baino lehen. **7. orrialdea**

**I. MIHI LUZE TXAPELKETA IGORREN**

**MARTIAK 10: BURKEZPEN EKITALDIA, OSTEA KOPETXOA**

**MARTIAK 31: KANPORKETEA**

**APRILAK 21: KANPORKETEA**

**MAYATZAK 19: KANPORKETEA**

**URRI LEHENEGOK 8: KANPORKETEA**

**URRI LEHENEGOK 22: FINAL HANDIA INBIU EGUNEAN**

**800K 15.000K LEHATZE ARETOAN**

**MHLZ**

800K 15.000K LEHATZE ARETOAN

## KANTU HERRIKOIAK

## ZUBITEKO KRIDIA

"Antzerki lan bateko kantua. Babiliteke Bizente Etxezarragarena (Zidorra) izatea".

Usaba nahi ba dozu  
kridue aurrerantza,  
barrie bilatuten  
hasi biharko da.  
Sebastian gixajua  
ezkondu eiten da,  
honen bizimodua  
zelan izango da.

Zubiteko kridiak  
niri gaur goizian,  
usike egin deusta  
bihotzen erdian.  
Zubiteko kridiak  
niri gaur goizian,  
mosu bet emon deusta  
bihotzen erdian.

Gau on guztiori te  
gau on usabari,  
otara baino ez bada  
lotara noa ni.

Gurera barik lotuko ziran  
gauzorregaz seguru nau.

Iturria: Bitoria Artetxe Ziarrusta (Zeanuri 1914-2006).

1978an, Zeanurin, Mikel Manterola, Iñaki Larrakoetxea eta Ruper Lekuek jasoa.

Zubiteko kridia

Zortzikoa

U - sa - ba nahi ba do - zu kri - due au - rre - ran - tza,  
ba - rri - e bi - la - tu - ten ha - si bi - har - ko da.  
Se - bas - tian gi - xa - ju - a ez - kon - du ei - ten da,  
ho - nen bi - zi - mo - du - a ze - lan i - zan - go da.

## TELEFONO INTERESGARRIAK

**Larrialdiak**

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
S.O.S. DEIAK 112

**Guardiako Farmaziak**

**09:00etatik 22:00etara**  
**Zezeilaren 27tik martiaren 4ra**

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15  
Tel.: 94 673 93 22

**22:00etatik 09:00etara**

Iruarrizaga. Amorebieta-Etxano.

**Martiaren 5etik 11ra**

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7  
Tel.: 94 631 73 11

**22:00etatik 09:00etara**

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano

**Martiaren 12tik 18ra**

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g  
Tel.: 94 631 39 50

**22:00etatik 09:00etara**

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano  
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

**Urte osoan****22:00etatik 09:00etara**

Carazo. Karmelo Torre kalea 12. Basauri.

**Medikuak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 631 56 30

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 45 03 61

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

**Udaletxeak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

**Udalen Mankomunitatea**

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

**Gorbeialde**

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

**Parketxea**

94 673 92 79

**Igorreko Kultur Etxea**

94 673 62 51

**Gorbeialde Irratia**

94 631 52 90

**Trenak**

Euskotren 902 543 210

**Bizkaibus\* 902 222 265**

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua  
22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era  
orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara  
30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era  
30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:  
06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik  
behin.

**Otxandiotik urteerak:**

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era  
orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,  
Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik  
21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago

zerbitzurik.

**Artea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta  
20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Artea**

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

**Zeberio-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15  
eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15,  
14:15, 17:15 eta 20:15.

**Bilbo-Zeberio**

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15  
eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40,  
16:40 eta 19:40ean.

**La Union\* 94 427 11 11****Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan  
dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau

eta Otxandioakoak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioarik ez dago.

**Babesleak:**

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)  
diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura

bbk



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

**Kudeatzailea:** Iñigo Iruarrizaga.

**Erredakzino taldea:** Ainhoa Duñabeitia, Maialen Egileor eta Irati Urien.

**Maketazinoa:** Iñigo Iruarrizaga.

**Publizidatea:** Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketea:** June Egileor, Maria Rodriguez eta Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Julen Eskalante eta Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Nerea Romero (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).

**Tirada:** 6.400 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

## ZEURE BERBEA

### 2012ko aurrekontuak

Zein urrun gelditzen dan lehenengoko plenoan entzun gendua: "Herriaren alde, danok batera lan egitea". Berba sano politak, esanguratsuak eta maiztzeoko hauteskundeetan herriak esane-koagaz bat etozanak, ezin da ahaztu boto bakar baten alde egon zala.

Aukera ezin hobeak egon dira alkarlanari ateak zabalduko, azkenengoa 2012rako aurrekontuak prestatzea. Baina honetan be alkarlanerako asmo hori ez da agertu. Aurrekontuak EAJ-PNVk aurkeztu dauz ezelango ahaleginik egin barik adostasun batera heltzeako plenora eroan aurretik. Zuzenketak aurkeztuteko aukerea egon da bai, plenoan be eztabaidatu dira bai, baina hori da adostutea? Prozesua ez liteke izan behar beste era batekoa, hau da, ez liteke izan behar ezer aurkeztu aurretik egin beharreko lana? Eta parte-hartzea non gelditu da? Bildu Zeanurik uste dau herria heritarraz batera egin behar dala eta Udalak aukerea emon behar deusala heritarren parte-hartzeari. Parte-hartze prozesua zabala eta publikoa izan behar dala. Aurrekontuak aurrera erodateko heritarrek ez dabe aukerarik euki euren eretxia emoteko, behintzat aukera hau ez da publikoa izan.

Bildu Zeanurik argitu gura dau lehenengo eta behin, 2012rako aurrekontuak EAJ-PNVk epez kanpo aurkeztu dauzala, legearen arabera (Foru Araua, 14. artikulutik 18ra) umiaren 15erako mahai gainean egon beharko zirala eta abenduaren 31rako onartuak edo

ez egon behar zirala. Epeak ez beteaz gain, dokumentazio garrantzitsua falta zan: zenbatekoa da tesoreria geldikina? Dakiguna da 2010ean negatiboa izan zala (-358.913,87€) baina 2011ko aurrekontuetan ez zan modifikaziorik egin negatibo hori konpontzeko; legeak eskatzen dauzan txosten batzuk be falta ziran: inbersioen eranskinak, likidazioaren estimazioa, ekonomia finantzazko txostena; Udalak eskatu eban azken maileguaren interesak ez dauz behar dan moduan kalkulatu; diru partida batzuk oker kokatuta egon dira...

Guzti horren aurrean Bilduk zuzenketak aurkeztu ditu. Osoko zuzenketak EAJ-PNVren ezetza jaso eban, partzial gehienak, ordea, onartuak izan dira. Baina aldaketak eskatzen eben zuzenketak ez ziran onartu: Arkitektoari jagokon partidea 40.000€koa dana gixitutea, kontratuen dagozan baldintza batzuk aldatutea; protokolo eta errepresentazio partidea 19.000€ dana gixitutea, Gorbealde irratian, Bizkaia irratian, Gorbealde, BEGtu Aldizkariari jagokiezan partidak berraztertutea...

EAJ-PNVk be zuzenketa batzuk aurkeztu zituan, jatorrizko aurrekontuetan ez ziran agertzen partida batzuk sortzea eskatu ebenak: Bardintasun Plana, Ume eta Gazteentzako Plana eta Euskera Biziberitzeko Plana. Hiru honeek ago batez onartu ziran.

Bilduk azpimarratu gura dau "Herriaren alde, danok batera lan egitea"ren alde egon garala, gagozala eta egongo garala, parte hartzea eta adostasuna bultzatuz.

BILDU ZEANURI

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGtutik eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Txubelazoa



Gure erreka inguruetan bizi dan anfibio ezagun honen izena dakargu oraingo honetan. Harrigarria da, benetan be, animalia honeri deitzeako Arratian dagoan berba desbardinaren kopurua (hogeitik gora). Baina guztien artean bakarra pormozionau behar dala-eta, bat aukeratu dogu: Txubelazoa. Euskera batuaz, igela esaten jako. Badakizu, irakurle, txubelazo zeberioztarren izengaizto zaharra be badana.

## ERETXIA

### Zergaitik sexu-hezkuntza krisi sasoian?



ISMENE CAMARERO

Sexologoa

Sexua, sexualitatea, erotismoa, andra eta gizonen arteko hartu-emonak, bikoteen hartu-emonak... Danok daukagu gai horreen ganeko ardurea, danok ikutzen gaitue zelanbait, eta, kontraesana dan arren, arlo honetan, hezkuntza mailan, hutsune handiak dagoz gure gizartean. Hutsune hori dala eta, sexuen arteko alkarbitzita-ahaleginak nahiko baldarrak izaten dira, eta, hain zuzen be, hartu-emon baldar horreen testuinguruan gertatzen dira gizateriaren gatazketariko asko: gizon eta andren arteko hartu-emon hierarkikoak, tratu txarrak, txarto tratautako gorputzak, sufrimentuak hartu-emonetan, bakardadea edo indibidualismoa edo isolamentua, gorputzaren zerbitzura dagozan merkaduak eta merkaduen zerbitzura dagozan gorputzak, baita emozioen eutsi ezina zein errepresioa be. Gure gizarteak ez deutse aurrez aurre begiratu gura gatx horreei, nahiz eta gatx horreek nahinon agertu. Gehien jota, adabakiak ipinten ditu arpegi politiko desbardinak garbitzeko. Baina, gaur egun, jentea hasi da nagiak ateraten eta sistemearen koherentzia faltak erakusten, arazoan sustraietaraino heltzeko. Eta sexualitatea kontuetan, ezin gara atzean geratu. Prebentzioan sakondu behar da eta prisazko gauzak ez dabe gauza inportanteen gainetik egon behar; ezinbestekoa da hori arazoak okerrera egin ez daien eta errepikatu ez daitezkan. Eta horixe da hezkuntza, hurrengo belaunaldiai mundua hobetuko daben jakintza eta baloreak transmitidutea. Horregaitik, ekonomikoa ezeze, balore-krisia be badan honen aurrean, gure

eginbeharra da gatazka horreei zuztarretatik aurre egitea, eta sexu-hezkuntzari behar dauan balioa, garrantzia eta espazioa emotea ikastetxeetan bertan. Sexua, hizkuntzearen moduan, ekinean ikasten ei da.

Eta, seguruenik, ekinean ikasten dogu danok gitxi gorabehera "berba egiten", eta ekinean lortuten dogu besteak guk esaten doguna gitxi gorabehera ulertutea. Batzuk beste batzuk baino hobeto. Baina... zer gertatuko litxakio hizkuntza bateri ikasiko ez balitz, idatziko ez balitz eta leiduko ez balitz? Danok berba egin arren, "txarto ulertuak" behin eta berrero gertatuko litzatekez, eta analfabetoz beteriko munduan biziko ginake. Eta danok dakigunez, gizarte garatuan ezin da analfabetismoa egon. Baina sexuaren lengoia historia idazten hasi baino ez gara egin ondino; eskandaluzkoa da, ze mundu analfabetoan bizi garen. Sexua danon agotan dago, mundu guztiak berba egiten dau, txantxak egiten ditu, egiten dau, da, behar dau, disfrutetan dau eta sufriduten dau sexuagaz, baina inork ez dogu euki benetako sexu alfabetatzea jasoteko subterterik, ez gaitue bultzatu Gizakion Izaera Sexuala ulertu eta ikertzera, holan, geure buruak gehiago eta hobeto ulertzeko.

Sexuaren lengoia gizakiaren berezko lengoia da, gizakia sexuduna da eta. Halanda ze, aztertu eta ikasi egin behar dogu, eta ulertu bere osotasun eta zabaltasunean. Eta zenbat eta gehiago jakin, hobeto ulertuko dogu geure burua eta hobeto erlazionauko gara besteakaz, gizarte eta testuinguru libreagoak erraztuz. Ez daigun ahaztu sexu-heziketa persona guztien heziketa eskubidearen barruan dagoala.

Horregaitik, krisi, aldaketa eta hausnarketa sasoietan, inoz baino beharrezkoago ikusten dot gure umeak, nerabeak eta helduak alfabetatzea, apurka-apurka, sexuaren arloan ondo hezitako gizarte bat lortu daigun: gorputzeko kateetatik, emozioen kateetatik eta hartu-emonen kateetatik libre dagoan gizarte. Heziketa gehiago alkarbitzita hobea euki daigun.

**BATZ**  
BATZ, S. KOOP.  
Tomea auzoa, 32  
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

*Beharrea beharrez, euskeraz eginez*

Enbata  
Batzon gaitu

**MONDRAGON**  
INDUSTRIAL CORPORATION

## LUMATUTEN



## KEPA INTXAUSTI

## Jai egunetan jai

**A**spaldian egunkarietan irakurri dodan hari bate-tik tirituta idaztea ebatzi dot. Eusko Jaurilaritzak urtean zazpi jai egunetan komertzioak zabalduko emon gura dauan aukerak sortu dauan txalapartari buruz. Emon gura daben pausua ikusita, nire inguruko merkatariaz berba egiteko aukerea ezin hobea emon deuste. Egia esan herritarrok ez dogu beti hain garbi ikusten kortina ostean gertatzen dana, baina eurek berba egin eta gero hobeto aitua dodazela onartu behar dot.

Hasteko, argi neukan eskaera instituzionala zala: ez zala herriak berak beharizana ikusita egindako eskaera bat eta, klaro, arraroa iruditu jatan hainbat aldiz heritarrok egindako eskaerak ukatu ostean (anbulategiak astegoienetan, zerbitzu publikoak gauean, instituzinoetako arreta orduak...) merkatal gune han-

dien eskaerari baiezkoa emotea.

Ebatzi horrek herrietako merkataritzan, guk uste baino eragin askoz handiagoa dauka. Merkatal gune handiak erosketak egiteko aukerea emon ezkerro, herriko merkatariek zelan ez deutso ba bere betiko bezeroari aukera bera emongo? Horretarako bere jai egunean lan egin beharko dau eta aste horretan jai hartu ez dauanez hamahiru egun jarraian ekin beharko deutso lanari. Ganera jakitun bere irabaziak ez dabela ezer nabarituko, azken baten, orain arte be, jai egunetako erosketak lan egunetan eginda eukiten doguz.

OCU bera be jai egunetan zabaltearen aurka dago. Konsumismoa indartuten dauala dino. Ganera erosketak jai egunerako itxi ezkerro bai merkatarientzat eta bai erosleontzat, "jai" berbeak bere zentzua galduko leuke.

Nahikoa orduetegi daukagu lan egunetan eta ez dot uste jai egunetan dendak zabaldu ezkerro hobekuntza handirik somatuko geunkeanik. Beraz agintariak, lehenengo herritarrok eskatzen doguzan zerbitzuak aprobak egiteko eta merkataritzaren lege barria geroagorako ixtea eskatuko neuskie.

## ZERTZEAN

## Gaia jarrita: "Ez dauka argirik"

## DIMAKO BERTSO ESKOLEA

1

Begitu ondo begitu egunak ez du argitu deabru batek izpi guztiak betiko eroan ditu.

2

Etorri jaku kanpotik ez dau holango robotik gauza ederrik ez jako urten oraindik ahotik.

3

Berak ez dauka lagunik edo hori uste dot nik kalte egiteko ez dauka ordurik ez da be egunik.

4

Etorri zan egunean Obako haitza ganean ke baltz zikina ikusi gindun isurtzen airean.

5

Kontuz ibili beragaz lhes joan leike hegaz berari aurre egiteko ni hemen egongo naz.

6

Jarri naiako begira galduta dauka dizdira bide guztiak sortzen bait ditu beraren neurriara.

7

Mendi gainean erbia gurean hizki larria azkenerako etorri jaku barriro argia...

8

Lehenengoaren hutsunean herrian ta auzunean handiak izan gura genuke txikitasunean.

9

Haltzak ez du bihotzik ez gaztanberak hezurrik inork sinistu gura badu, ez dot esan guzurrik.

## BEGI TXINDORRA

**E**hun personatik gora batu ei ziran Lemoan zugatzak landatuteko. Baina zugatzak –ai!- hamahiru baino ez ziran izan. Umeak landatu ei zituen hamahiru zugatz horreek –ai!- igaz landatu eta hil ziranen leku berean.

Dana dala, Lemoakoak ez eben etsi eta alferrikako lana dirudian zugatzak baino sinboloak landatzeari ekin eutsien.

Foru Aldundiak Arratian landatuteko igaz baino zugatz gitxiago emongo ditualakoan nago. Argi dago ekonomian egin diran murrizketak, bizitzari berari eragin deusiela eta bizitzaren sinbolo diran zugatzak be sufridu dabe eragin hori. Gobernuak, dirua eguneroko bizitzatik kendu eta sistema finantziarioa sendotuteko erabili dabe, munduko aberatsenak euren espekulazioak jarraitu daien. Abaratsak aberatsago eta pobreak pobreago. Bizitzaren sostenguaren kontrako ebatzia hartuz. Globalizazio ekonomiko-finantziarioa bizirik jarraituteko aukera gitxi emoten dauan lur antzua dana jakinda.

Eta holan, bizi dogun sasoiotako metafora bat balitz moduan, zugatz gitxi landatu dira zugatz egunean -ai!- eta datorren urtean bizirik jarraituteko aukera gitxi emoten dauan lur baten –aaaa!-.



  
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

**LORAZAINTZA**

Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostiscl.com

 **agoa** Ortodontzia  
hagin klinika Implanteak  
Estetika

Marina Urigoitia Aidedoa Odontologia

Bidebarri 1, behea  
48140 Igoite-Bizkaia  
T. 94 631 50 39

Kaleja Zerbaita 10  
R.P.S. 25/06

 **expert**  **ARRATIA**

E-posta: expertarratia@cordevi.com  
Lehendakari Agirre, 16 Tel. 94 673 60 55  
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax 94 631 52 89

  
**ASESORIA  
Gorbeialde**

Juridikea · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza

Askatasun 28, 1B 48143 Areatza  
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82  
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

ARRATIA

# Andren diskriminazioa lan munduan salatuko dabe martiaren 8an

Andra beharginaren Nazinoarteko Eguna ospatuteko, dozena bat baino ekitaldi gehiago antolatu ditue Arratiako talde feministak, andra taldeak eta udaletxeetako andra arloak, "Emakumea eta lana" gai hartuta. Martiaren 8an, lan munduan dagoan andren diskriminazioa salatuteko, konzentrazioa egingo da Igorren.



**Erredakzioa**

Asteazken zehar, Arratia osoan lanaren gaineko berbaldiak egingo dira.

**Soldata diferentzia handia dago andra eta gizonen artean**

Zezeilaren 22an ospatu zuten andra eta gizonen arteko soldata berdintasunaren aldeko eguna. Emakundek jakinarazo ebanek, gaur egun soldata diferentzia urtean 7.000 euro ingurukoa da eta EAEn zatikako ordutegia daukien lanpostuen % 85,3 andrak betetzen dabe.

INEren "Encuesta de estructura salarial" dalakoan jasoten denez, andra eta gizonen arteko soldata diferentzia 7.139,50 eurokoa da (andrak: 19.771,80 / gizonak: 26.911,40). Sektoreak kontuan izanda, diferentzia handienak zerbitzu sektorean emoten dira, andra gehien dagoan sektorean, hain zuzen be.

Europar Batasuneko herrialdeetan soldata diferentzia % 17,4koa dala kalkuletan da eta Espainian %

25,6koa.

EAEn lan egiten daben andren artean, 10 andratik 2,7k daukie kontratu partziala. Gizonen kasuan 100etik 3,8k. Eta sektore informalean lan egiten daben gehienak andrak dira.

**Egitaraua**

**Martiaren 5etik 18ra Igorren**  
Euskadi-Kuba alkartearen *Emakume baserritarrak* argazki erakusketea Igorreko Kultur Etxean.

**Martiak 6, martitzena LEMOA**

19:30ean, jubiladu etxeko aretoan Nekane Juradoren berbaldia "Euskal emakumeek ekonomian izan duten ekarpen izkutua".

**Martiak 7, eguaztena ARTEA**

18:00etan, eztabaida-meriendea. Hizlaria Loredi Salegi "*¿Realmente el trabajo reproductivo no es un trabajo productivo?*" Kultur Etxean.

**IGORRE**

19:00etan, Etxalde taldeko Isabel Gonzaloren berbaldia "Europako nekazal politikak zelan eragiten deusek andra baserritarrai?" Kultur Etxean.

**Martiak 8, eguena IGORRE**

19:00etan, Kultur Etxearen au-

rean konzentrazioa.

**Martiak 9, barikua AREATZA**

19:00etan, Marian Verderen berbaldia "*Reivindicaciones de las mujeres trabajadoras de Firestone*" Udal Aretoan. Ondoren, kopautxua.

**DIMA**

19:00etan, filma *En un lugar del corazón*.

21:00etan, poteoa plazatik 21:30ean, afaria Artaungo Aspuruan eta jantzaldia DJ Xaiborre-gaz.

**ZEANURI**

21:30ean, afaria Mazalak antolatuta.

**Martiak 10, IGORRE**

22:00etan, zinea *La fuente de las mujeres* Lasarte Aretoan.

**Martiak 11, domekea DIMA**

09:15ean, Arratiako andren II. Mendi Martxea. Belatxikietara igoera Artaunetik. 09:00etan Dimako plazan.

12:30-13:00 Pintxo jana Dimako plazan parte hartzaileen-tzat.

**IGORRE**

19:30ean, zinea *La fuente de las mujeres* Lasarte Aretoan.

**Martiak 16, barikua DIMA**

19:30 "Dimako Andren Memoriaren" topaketen ikusentzunezkoaren aurkezpena udal-etxean.

ARRATIA

# Andra baserritarren lehen topaketea Arratian antolatu dau Etxalde

Etxalde nekazaritza iraunkorrerako mobimentuak Euskal Herriko andra baserritarren lehen topaketak antolatu ditu Arratian martiaren 8aren inguruan, "Baserritar jakinduria eta teknologia" titulupean.



Andra baserritarrak beharrean.

**Erredakzioa**

Bertan, Europako nekazal politiken, Ertamerikako nekazal mobimentuen eta Euskal Herriko egungo egoeraren gaineko hausnarketea egingo dabe parte hartzean daben andra baserritarrak.

EHNE sindikatutik sortua "Etxalde mobimentua hasibaria da, urte bi daroaz eta hau da lehenengo ekitaldi publikoa" azaldu deutso BEGITURI Sonia Ingunza Etxaldekoak.

Martiaren 7an, arrastiko 16:00etan emongo deutsee hasiereta topaketai Ekomuseoan.

**Azken urteotan Arratiako jente gazte asko sartu da EHNE baserritarren sindikatuan, batez be andrazkoak**

Gero, arrastiko zazpiretan Isabel de Gonzalok Europako Nekazal Politikak zelan eragiten deusek andra baserritarrai azalduko dau berbaldi baten Igorreko Kultur Etxean.

Hurrengo egunean, goizeko 10:00etan batuta, partaideak baserritarren jakinduria eta teknologiaren gainean eztabaidatzen jarraituko dabe eta 12:00etan inguruko baserrietara bisitak egingo dabez. Alkarregaz bazkaldu eta arrastiko zazpiretan Igorreko Kultur Etxe aurrean egingo dan martiaren 8ko konzentrazioan hartuko dabe parte baserritarrak.

**Baserritar andrazko gazteak** Arratian andra gazteak egin dabela baserriaren aldeko apostua dinoe EHNEkoak. "Horixe izan da topaketa honek Arratian egiteko arrazoia. Azken urteotan Arratiako jente gazte asko sartu dala EHNEen, batez be, andrak" azaldu eban Ingunzak.

## IGORRE

## Garoña zentral nuklearra zarratuteko eta sektore publikoaren erreformaren kontrako mozinoak onartu dira

## Erredakzioa

Bildu Igorrek aurkeztutako bi mozino onartu ziran zezeilaren 20ko osoko batzarrean, Bilduko bost ordezkarien aldeko botoakaz eta EAJ-PNVren eta Igorre Danontzat taldeen abstentzinoagaz.

Lehen mozinoa, Santa Maria de Garoña zentral nuklearra zarratutearen aldekoa izan zan. Berrogei urteko balio-bizitza pasau eban zentralak igaz eta Bilduren ustez "zentralaren ekarpen energetikoa honezker bestelako sistema barritzagarriak beteten dabe. Mozino honen

bidez deia egin jako Espainiar Estaduko Gobernuari berehala zarratu dagian, horretarako egingo diran edozein ekimen babestuz" jakinarazo dabe Bildukoak.

### Sektore erreformaren publikoaren kontrako mozinoa

"Udalean jubilauro dan funtzionarioen plazarik ez beteteko" dino erreforma honek, besteak beste. "Udal beharginak jubilauro ahala, zerbitzuak emoteko beste langile ez izateak zerbitzuaren kalidadea kaltetutea ekarriko dau" Bilduko enretxian, horregaitik onartu eban mozinoa.

## ZEBERIO

## Euskera ikastaroak antolatu dira AEKren laguntzaz

## Erredakzioa

Zeberio Udalak euskera ikastaroak antolatu ditu AEKren laguntzaz. Eskolak goizez eta arrastiz izaten dira Zeberio eskola zaharrean. Hasiera maila eta maila ertaina dagoz eta ikastaroak asistentziaren arabera bekeagaz funtzionetan dabe. "Ikasturte osoan % 100eko asistentzia izan dauanari de balde aterako jako, Udalak ordainduko deutso ikastaroa eta. % 80ko asistentzia izan dauanari beste horrenbeste ordainduko deutso Udalak, eta holan asistentziaren arabera"

azaldu deutso BEGUTURI Nahikari Añibarro Zeberio kultura zinegotziak.

Horretarako dirua behar danez, dirua beste bide batzuetatik lortu behar izan dala dino udal iturriak. "Esate baterako Zeberio Udalak badaroz urte batzuk herritarri egutegiak oparitzen. 2012ko egutegian, 2011koaren erdia gastau da eta oparitutakoaz gain, bateren batek gehiago gura izan ezker 3 €ko prezioa jarri jakie egutegioi eta danak agortu dira" dino Añibarrok. Egutegia Zeberio andren omenez izan da.



Zeberio.

## ARTEA

## EAJ-PNVren aurrekontuak ez ziran onartu

EAJ-PNVk aurkeztutako aurrekontuen proposamena atzera bota eban Bilduk eta Aldatuz Plataformek zezeilaren 22an egin zan osoko bilkuran.



Arteako udaletxea.

## Erredakzioa

Alkatetzearen 2012rako aurrekontuen proposamenak, aldeko 3 boto izan zituan, EAJ-PNVkoak, eta 4 boto kontra, Bildu eta Aldatuzenekoak. Beraz, 2011ko aurrekontuak luzatuko dira eta honek markauko dabe gehiezeko gastua.

Ordu laurden baten ebatzi zan dana. Aldatuzek protesta egin eban esanez eurek Bildugaz batera, beste proposamen bat helduarazo eutsiela EAJ-PNVri eta ez ebela ezelango erantzunik jaso. Bilduk be bere desadostasuna agertu eban aurrekontu honek ez dirala parte-hartzaileak eta horregaitik euren botoa kontrako izango zala esanez. Baina, gainera "aurrekontu honek ez dabez kon-

tuan hartzean ez gastu soziala, ez kulturea ezta euskerea" esan eban. Bilduren arabera, aitatutakoaz gainera, eurek proposatzen eban, eskola batzorde bat sortzea, enplegu plana, alkateari soldata gitxitzea eta frontoiko obren inguruko ikerketa bat "jakiteko nora joan dan hainbeste diru eta zein izan dan frontoia- ren kudeaketea", beste gauza batzuen artean. Eta batzordeetan behar egin ostean, eurek proposatutako aldaketa bat be ez zala jaso salatu eban.

EAJ-PNVk erantzun eban proposamen batzuk baegozala onartuta aurrekontu horretan, frontoia amaitutea eta kulturarentzako dirua, barbarako. "Beharbada ez da gura genduan beste diruagaz" baina diru askorik ez dagoala esan eban.

## ZEBERIO

## Etxe tasaduen eskaerea egiteko epea zabalik

## Erredakzioa

Martiaren 9a arte, Zeberio Zubialde (Iturondo) auzoko udal etxebizitza tasaduetako eskaerea egiteko epea zabalik dago. Etxeak garajea eta trastelekua daukiez. Informazioa, hau da, planoak, ezaugarriak eta prezioak, eta eskabide-orria udaletxean dagoz eskuragarri.

Zeberion ez eroldatuak be aurkeztu ahal dabe eskaerea.

## DIMA

## Sarbidea konpontzeko lanak eskolan

## Erredakzioa

Dimako eskoletako oinezkoen sarbidea bariztatuteko Eusko Jurlaritzak diru laguntzea emongo deutso Dimako Udalar. "Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko abenduaren 2ko ebazpenez, "Udalaguntza 2011" kontzeptuaren kargura, Dimako Udalar diru laguntza bat emotea ebatzi da, 9.960,85€koa, honako hau finantzatuko: eskoletako oinezkoen sarbidea zaharberitzea" azaldu dabe Udaletik.

## ZEBERIO

## Euskera Plana ez dau enpresa batek egingo

## Erredakzioa

Zeberio Euskera Plana Euskera Zerbitzuak eta herritarrak egingo dabe. Euskera Plana baino planak, ze euskera plan bi dagoz: udal barruko Erabilera Plana (Erabilera Plana izenekoa) eta udal mailako (EBPN izenekoa). Plan biak aurten amaituten dira. Hori dala eta, euskera batzordea eratuko dabe Euskera Egitasmoa jorratuteko.

Egitasmo barria egiteko "orain hasi eta urte amaierara arte iraungo dauan prozesu bateri ekingo deusagu. Prozesu horretan nahitaezko tresna eta bidea euskera batzordea izango da, ekimen hau aurrera eroateko" azaldu deutso BEGUTURI Jon Bollar Zeberio euskera teknikariak. Batzorde horretan Austarri Kultur Elkarte, Guraso alkatea, Gazteak eta Austarri mendi taldeko persona banak gitxienez hartuko dabe parte, "baita interesa daukan edozein herritarrek be".

Plana diseinetako ez dabela ezelango enpresarik erabiliko, dino Bollarrek eta Euskera Zerbitzutik proposatutako metodologia bateri jarraituz egingo dabe. "Euskera Batzordea herritarrak osotuko dabe eta lehenengo pausua diagnostikoa egitea izango da. Horretarako, AMIA (Ahuleziak, Mehatxuak, Indarguneak, Aukerak) eraikiko dabe eta hortik datozen hiruzpalau urteetarako helburu nagusia zein dan zehaztuko da, eta baita helburu estrategikoak. Ondoren, helburu horreek lortzeako gaitutu beharreko erronkak eta jarraitu beharreko ildoak zehaztuko doguz. Amaitzeko, urte amaieran hori guztia lortzeako 2013an egingo diran ekintzak zerrendatuko doguz" dino teknikariak.

## Aurtengo ekintzak

Hori egin bitartean, aurten, planean zehaztutako ekintzak eta barriren bat egitekotan dagoz Zeberion. Holan, hizkuntzearen transmisioari jagokonez, eskoleagaz jarduteko asmoa daukie eta erabilereari jagokonez, herritarren artean euskerea erabiltearen aldeko konzientziazino kanpainaren bat egitekotan dagoz, beste gauza batzuen artean. Izan be, "Zeberio euskera ezagutza tasa handia dauka, baina erabilereak huts egiten dau" dino Bollar teknikariak.

## IGORRE

Izena emoteko fitxea.

# Euskera Planak Mihiluze Txapelketea antolatuko dau

Martiaren 10ean hasi eta urri lehenengoaren 22an, INBIU egunean, amaituko da Igorreko Euskera Planak antolatutako Mihiluze Txapelketea.

### Erredakzioa

Martiaren 10ean, 18:00etan aurkezpen ekitaldia egingo da Kultur Etxeko Lasarte Aretoa Mihiluze Txapelketea zelangoa izango dan erakusteko. Hiru bikote izango dira saiko parte-hartzaileak: Iraia Inunziaga eta Naiara Zurinaga; Pedro Kortazar eta M<sup>o</sup> Jose Barrenetxea eta Ainhoa Zuluaga eta Garikoitz Etxebarria. Hiru bikoteak euren artean lehiatuko dira euskereagaz daukien abilezia erakusteko. Ekitaldiaren ostean kopautxo egongo da bertaratuten diran guztientzat.

Mihiluze txapelketea antolatutako ETB1eko Mihiluze saioan oinarritu dira Euskera Planekoak, eta saioaren egitura mantentzen dabe baina, "bertokotu egin doguz probak, arratiartu" dino Amaia Arauzo Igorreko euskera teknikariak. Horretarako orain urte bi argitaratu zan Arratia Inguruko Hiztegia erabili dabe eta eguneroko erabileran desageratuten dabizan berbak aukeratu dabez probetarako.

Euskera Planeko kideen esanetan, "helburua euskereagaz, hizkuntzeagaz jolastutea da, euskerea modu ludiko baten presente egotea herrian eta jolasaren bidez, bertoko berbak promozionetea eta horreen erabilera bultzatutea, hori bai, umorez eta eritmo biziz".

### Eskolea, Institutua eta herritarrak

Txapelketan hiru kategoria desbardindu dabez antolatzaileak: eskolea, Institutua eta herritarrak.

Escolan eta Institutuan gela

bakotzeko ordezkariak aukeratu dira txapelketan parte hartzeako. Eskolako kanporaketak eta finala San Antonio jaietan izango da, bagilaren 10ean, Lasarte Aretoa. Institutuko kanporaketak, martiaren 30ean egingo dira, hamabostaldi kulturalaren barruko ekintza moduan; eta hiru finalistak INBIU egunean lehiatuko dira. Herritarren kanporaketak barriz, martiaren 31n, aprilaren 21ean, maiatzaren 19an eta urri lehenengoaren 8an izango dira, zapatuetan 18:00etan Lasarte aretoa. Herritarren finala be, INBIU egunean izango da.

### Sariak

Partaide guztiai kamisetak oparitu jakiez eta saridunak Mihiluze jokoa eta Kultur Etxeko zinea eta antzerkia debalde urte amaierara arte izango dabe. Horrez gainera, eskolako saridunak MP4a; Institutukoak tablet-a eta herritarrak astegoieneko egonaldia eukiko dabe.

Izena emoteko esku-orriak bananduko dira tabernetan, komertzioetan, udaletxean, kiroldegian eta Kultur Etxean. Fitxea ebago eta Igorreko Kultur Etxean entregau behar da martiaren 23a baino lehen. Webgunean be eskuragarri egongo da.

Urri lehenengoaren 22an, INBIU egunean izango da Mihiluze Txapelketako finala

## IGORRE

# Garbigunean ustez lapurretan zala hil da gizon bat

### Erredakzioa

Ertzaintzak jakitera emon dauanaren arabera, Durango eta Galdakaoko Ertzain-etxeko agenteak ikertzen dabiz zezeilaren 20an Galdakaon hilda ospitaleratu zan

gizonezko baten heriotzea. Ezezagun batzuk eroan eben larri, Igorreko Garbigunetik ospitalera, antza deskarga elektriko batek jota. Ustez, transformadorea lapurtzen egoan eta zirkuitulabur bat gertatu zan transformado-

rean. Honen korrantea 13.000 voltiotaraino heltzean da.

Hildakoak 35 urte zituan eta kablea lapurtzeagaitik behin atxilotutakoa zan.

### Kanposantuan triskantzea

Zezeilaren 23an, barriz, Igorreko kanposantura ezezagun batzuk "sartu eta hilobi piloa apurtu" zituen, ustez lapurretan, Agustin Elexpe Igorreko aguazilak BEGITU-ri azaldu deusaren arabera.

## ARRATIA

# Caritasen laguntzea jasoteko eskaerak gora egin eban igaz

### Erredakzioa

Hogeta hiru espedienteri emon eutsan laguntza ekonomikoa Arratiako Caritasen 2011n, 10.000 euroak gaudituz diru laguntzetan.

Laguntza ekonomikoak "oinarriko beharizetan laguntzeko, edota legez jagokon laguntzea jaso arteko bitartean laguntzeko emon dira. Demandak gora egin dauanez, urrietan Caritas Arratiak agortuta eukan bere aurrekontua eta berau gaudituz egin behar izan dau urtea amaitu bitartean" emon dau jakitera Arratiako Caritasen.

Egoera administratiboari begira, Caritasen egoera ez normalizatua dabenak lagundu ditu ge-



Senbilizazio kanpainak be egin dauz Caritasen.

hien bat. Izan be, laguntza hau jaso dabenen %17k bakarrik daukie egoera administratiboa erregulata.

Gainera, sensibilizazio kanpainak egin eta bidezko merkataritza-aren gaineko informazioa emon eta produktuak saldu zituan Caritasen igaz.

## IGORRE

# Udalak ondo aparketako kanpaina abiatu dau

### Erredakzioa

"Herritarren bizikidetzak hobetu guran, oinezkoari lehentasuna emon eta aparkalekuen gaia zuzentzeko helburuagaz" Igorreko Udalak ondo aparketako kanpaina abian

ipini dau eta isunen bidea be indartu dau horretarako. Herriko komertzio eta dendatan bandoak ipini zituela eta udaleko aguazilak gai honetan zorrotzak izateko agindua jaso dabela jakinarazo dabe udal iturriak.

"Herritarrek autoa aparkatzerakoan dituen ohitura okerrak dirala eta, gixieneko neurri batzuk hartzea ebatzi eben ago batez udala osotuten daben alderdiak. Espaloi ganeak, zebraideak eta oinezkoentzako guneak kotxeetatik babesteko ebatzia hartu da eta ezinduentzako aparkalekuak kolektibo horrek bakarrik erabiltzeko neurriak be hartu dira" azaldu dabe udaletik.

Bigarren lerroan aparketea be zuzendu beharko ohitura horreen artean dago.



Autoak sarri txarto aparkauta egoten dira Agirre Lehendakaria kalean.

**BIZKAIE.BIZ**

Bizkai euskera sendo dago eta gero eta gehiago dira bizkaieraz informazioa ematen daberen hedabideak. "Sasoi bateko konplejuak eta kontrako jarrerak desagertu dira eta gaur egun gitxi izango dira euskera bizia, naturala, etxean jasotakoa aintzat hartzean ez dabena. Euskera batuaren alde egin gura badogu nahitaezkoa da euskalkiak ez baztertzea; izan be, euskalkiak euskera batuaren osogarri eta aberasgarri dira" dino Koldo Isusi Bizkaie! agerkari digitalaren zuzendariak.

**Erredakzioa**

Isusiren eretxian euskal komunikabideen sarean, bizkaierak badauka bere lekutxo "bizkaieradunak asko gara, pentsetan doguna baino gehiago eta horreek guztiak bizkaiera darabilen komunikabideak merezidu ditue, izan be, globalizazioaren aroan lekuan lekuko gauzak, euskalkiak, tradizioak eta beste-lakoak gero eta indar handiagoa daukie" dino.

Bizkai euskera erabilten daberen hedabide idatzi bik hamar urte betetzen dabez udabarri honetan: BEGITUK apirilaren 20an eta Bizkaie!k apirilaren 8an.

**Arratiarrak gustukoa dabe Bizkaie!**

Bizkaie! modu berezian dago Arratiagaz lotuta. Alde batetik, agerkari honetan erabilten daberen mendebaldeko euskalkia, edo bizkaiera batua edo jaso, Arratiako ereduari jarraituta sortu zan. Halaxe inoan Juanjo Iribar irakasleak BEGITUREN 98. zenbakian: "XIX. mendean bizkaiera idazten hasi zanean egon ziran eskola bi. Bata Markinako eskola izan zan, Juan Antonio Mogel eta horreek. Horreek fo-

# 10 urte bizkai euskereari interneten lekua egiten

The screenshot shows the Bizkaie! website interface. At the top, there's a header with 'bizkai e! BERBA' and a search box. Below that, a navigation menu lists categories like HASIKEREA, AURKIBIDEA, AGENDEA, BARRIKETAN, BEREN BEREGI, KULTUREA, JO BEGIZ, BIZKAIAN ZEHAR, EUSKERA BERBAGAI, JAN-EDANAK, BIDAIDE, BERTSOTAN, EUSKALDUNOK MUNDUAN, ANTIXINA-BARRI, SAREAN, ZINEA, MUSIKEA, IRAKURLEAREN TXOKOA, and Berba Txat. The main content area features an article titled 'Agur eta ohore' by Koldo Isusi, dated 1. urtea // 0 zenbakia - 2002ko apirilaren 8a - Hamaboskaria. The article discusses the launch of Bizkaie! and the role of the Bizkaierazko Aldizkari Elektronikoa. Other articles include 'Ana Madariaga, Kultura Diputadua' and 'Luang Prabang'. A sidebar on the right contains a '4 LAGUN BIZKAIEGAZ' section, a 'bizkaiera.net' logo, and a 'Denok gara Egunkaria' section.

Bizkaie!-ren 2002ko apirilaren 8ko 0. zenbakia.

**Zugaitik BEGITUREN dogu**  
A.P.I. 495  
www.inmobiliarialarrea.com

Lehendakari Agirre, 8 behea  
48140 Igorre  
Tfnoa: 94 631 80 04

**ellaURI HOTELA**  
Naturazko ospitaleritza

Landa Turismoa  
Enpresa Zerbitzuak

Aitzusta 38, 48144 ZEANURI | +34 946 317 888 | ellauri.com

**GALANTA**  
Bametik janzteko  
Zugandik sartu hurbil

**Badator udabarria, bazatuz?**  
Lehendakari Agirre 23, Igorre  
Telefonoa: 94 631 90 08

Bizkaifisios SLk bi zentro ditu  
**Fisioterapia Zentroa Igorre**  
Elexalde 4  
Telefonoa 94 631 55 08

**Andra Mari Klinika**  
Fisioterapia Zentroa  
Pontzi Zabala 1, Galdakao  
Tel/faxa 94 457 23 64

www.bizkaifisios.com

**arratiako instalazioak s.l.**  
Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatze sistemak - Aire zurgitze zentralizatuak  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industriales, Pol. 07  
Tel/Fax 94 673 62 76  
891 734 516  
48140 Igorre Bizkaia





Koldo Isusi eta Nagore Ferreira.

netismo eta guzti idazten eben. Ostera, Pedro Antonio Añibarrok (Areatza) Arratiako eskolakoak, fonetismo barik idazten eban" Azkenengo hau, hartu zala oinarri moduan bizkaiera idatzirako azaldu eban orduan Iribarrek. Seguru asko horregaitik, mendebaldeko euskalki arautua erabilteak Arratiagazko lotura moduko bat sortzean dau, senidetasun antzeko bat.

Beste alde batetik, Bizkaie! Bizkaie Alkarte Kulturalaren ekinbidea izan zan eta kolaboratzaileen artean arratiar izen ezagunak topetan doguz: Gorka Intxaurbe zeanuriztarrak bertsolaritzaren gaineko kolaborazioak egiten ditu, barbarako. Baina ez da Bizkaie!-k izan dauan gure eremuko kolaboratzaile bakarra. Ha-

mar urte honeetan hainbat arratiarrek kolaborau dau Bizkaie!-n: Manu Etxebarria (Zeberio), Julen Gabiria (Bedia), Jon Urutxurtu (Zeanuri)... Eta honeek BEGITUN be egiten dabez kolaborazioak.

#### Interneten bizkaiereari lekua egiten

"Bizkaie! www.bizkaie.biz mendebaldeko euskalkiaren eredu jagia erabiliz askotariko gaiak jorratzen dituan agerkaria 2002ko aprilaren 8an agertu zan lehenengoz Interneten. Bilbon egoitza dauan irabazi asmorik bako Bizkaie Alkarte Kulturalaren ekinbidea izan zan. Mendebaldeko euskalkia eta teknologia barriak buztartuz, euskera sustatu, zabaldu eta bizkaiera idatzaren normalizazio prozesuan

laguntzeko abiarazo genduan agerkaria. Bizkaiera indartzeko sano aproposa begitandu jakun Interneten be lekua egitea euskalkiari eta holan abiatu ginan" azaldu deutso BEGITURI Koldo Isusi zuzendariak.

Bizkaie! hamabostekari izan zan 2002ko apiletik 2004ko zezeilera, astekari 2004ko zezeilatik 2006ko maiatzera eta gaur egun etenik bako agerkaria da, eta informazioa jaso ahala sareraten dau.

"Beste mugari bat, Bizkaie! agerkarian blogak sartzea izan zan. 2006an, hiru blog abiarazo genduzan Iñaki Atxutegi, Xabier Paia eta Erramun Osaren eskutik. 2007an, Bizkaie!-ren V. urteurrenean, ordura arteko ibilbide osoa jasoten eban CDa atara genduan, bost urteotan idatzitako guztia Internetetik kanpoko euskarrin" dino Isusi.

Bizkaie!-k hainbat sari jaso ditu. 2003an Buber Saria irabazi eban 'Interneten euskera zabaltzen gehien lagundu dauan webgunea' kategorian; 2008ko bagilean, XX. Rikardo Arregi Kazetaritza Sarietan, Epaimahaia- ren Sari Berezia eta 2011, euskal web onenak saritzeko elcorreo.com sarietan finalista izan zan 'Aisialdia eta zerbitzuak' kategorian (600 hautagai eta 12 webgune finalista).

Bizkaie!-ren azken urtebeteko datuai erreparata, danetara, 942.816 bisita izan dabela dino Nagore Ferreira Bizkaie!-ren koordinatzaileak eta egunean batez beste 2.706 lagun sartzean dirala www.bizkaie.biz webgunean. "Sare sozialai jagokienez, Facebook-en 3.000 lagunetik gora daukaguz eta Twitter-ren, barriz, 442 jarraitzaile".

#### Gehienbat kultura gaiak

Bizkaie! agerkarian, gehienbat kultura gaiak, bertsolaritza, literatura, musikea, jardunaldiak, erakusketak, zinea, antzerkia eta abar jorratzen dabez baina euskaldunak munduan, bidaia

kronikak, bitxikeriak, informatiketa zein interneteko kontuak be bai.

"Kontuak kontu, gure eguneroko jardunean prentsurrekoetara joan, hor esandakoak jaso eta barriak idatzi, prentsa digitalean argitaratutakoak aztertu, agentzietatik edo beste komunikabide batzuetatik jasoten doguzan barriak egokitu, bizkaieratu eta kasu batzuetan itzuli, konbidatuai alkarrizketak egin, transkribidu, Facebook eta Twitter sare sozialak elikatu... horixe da gure lana.

Gainerakoan, diseinu aldaketaren bat edo beste egin izan doguz hamar urteotan, erabiltzaileak euren eskatuta edo geuk beharrezana ikusi dogulako, beti be, kalidadeari eta alde bisualari erreparata eta erabiltzailei nabigazioa errezteko asmoagaz.

Maketazio automatikoa darabilgu eta webgunean barriak garrantziaren edo egunerokotasunaren arabera ordenetan doguz" dino Nagore Ferreira koordinatzaileak.

#### Urteurrena beharrez ospatuko dabe

Hamargarren urteurrena ospatuko ez dabela ekitaldirik antolatuko dino Bizkaie!-koak. "Urteurrena beharrez ospatuko dogu, egunerokoari eustea be ez dalako gitxi. Edozelan be, kazetarien aurrean agertuko gara aprilaren hasieran eta prentsurrean 10 urteotako balantzea edo errepaso egingo dogu eta aprian zehar webgunean alkarrizketabarriketaldi bereziak argitaratuko doguz. Alkarrizketak geuk zuzenean egin beharrez, konbidatu bi jarriko doguz aurrez-aurre eta euren arteko barriketaldiak mamitsuak eta gazdunak izatea espero dogu. Horrezaz ganera, Bizkaie!-ren 10. urteurreneko kamisetak egin doguz eta argazki lehiaketa edo bestelako bitartez, bai webgunean eta bai sare sozialetan gure erabiltzaileen artean bananduteko asmoa daukagu" dinoe.

www.bizkaie.biz  
mendebaldeko  
euskalkiaren eredu  
jagia erabiliz askotariko  
gaiak jorratzen dituan  
agerkaria 2002ko  
aprilaren 8an agertu zan  
lehenengoz

## Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urtetik 18ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikola

<b>Arratia BHI</b> Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igoerre
<b>Ikastola Arratia HI</b> Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea
<b>Zubialde HI</b> Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio
<b>I. Zubizarreta HI</b> Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igoerre
<b>Areatzako Herri Eskola</b> Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza
<b>Zeanuri HI</b> Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri
<b>J.B. Eguskiza Meabe HI</b> Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa
<b>Ugarana HI</b> Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorreko Egarren Hezkuntza, Baxilegiak, Hezkuntza zikloak

## JANDONIZ

guzentzako etxea  
residencia para mayores



Jandoniz, 2 - 48390 BEDIA Bizkaia - tel. 94 631 31 30 - www.jandoniz.com

## Kendall Languages

- Trinity College Londonen azterketa ofizialerako matrikulea zabalik martiaren 23ra arte
- Cambridge, EOI, First Certificate... azterketetarako prestaketa

Eltxalde 4 behea - 48.140 Igoerre (Bizkaia) - 94 657 73 48 - www.kendall-languages.com

## AIZKOREA

**Aitzol Atutxa eta Iñaki Azurmendi final barik**

Aitzol Atutxa Galdakaon.

Erredakzioa

XI. Eusko Label Binakako Aizkora Txapelketako finalean ez dira igazko txapelkunak, Aitzol Atutxa dimoztara eta Iñaki Azurmendi, izango. Izan be, zezeilaren 19an, Anjel Arrospide eta Ugaitz Mugertza nagusitu jakien Galdakaon eta honeek izango dira finala jokatu dabenak Otaegi eta Otañoren kontra.

Arratiarrez beteta egoan Galdakaoko frontoia. Eta han, Atutxa II.ak eta Azurmendik 20 minutu eta 39 segundo behar izan zituen lana amaituteko, Arrospide eta Mugertza II.ak, barriz, 19 minutu eta 57 segundo.

## FUTBOLA

**Finalaurrekoetan Kopan**

Lemoa etxeko partidu baten.

Maialen Egileor

Burgosen kontra bina bardindu eta Salamankagaz 0-2 galdu ostean, Lemoa azkenengo postuan dago. 15 puntu daukaz, Burgosek beste eta salbazinoa 12 puntura dago oindino.

Federazio Kopeagaz behintzat ligako penak ahaztu dabez. Zezeilaren 22an jokatu eben bueltako partidua Arlonagusian. Tuteran bina egin ostean, 0-0ko emaitzeak balio eutsen aurrera egiteko. Azkenean bana amaitu zan partidua eta Lemoa finalaurrekoetan da. 11.000 euro jaso dabez horregaitik, ganera, Ceutari irabazten badeutsie gehiago jasoko dabe.

Arratiarrak lider

Iurretakori 1-2 eta Enkarterriko neskai 2-0 irabazi eta gero, 50 puntu daukiez eta saikapeneko lehenengo postuan segiduten dabe andrazkoak. Horretan lagundu dabe taldeko atezainak, bai Olaia Justo eta bai Patricia Fernandezek. Euren mailako "Zamora" mitikoa dira. Olaiak ez dau golik jaso jokatu dauzan 6 partiduetan eta Patricia 5 bakarrik jaso dauz 12 partidutan. Gizonezkoak be lehenengo postuan jarraituten dabe, nahiz eta azkenengo partidua bardindu. Bina egin eben Bakioren kontra. Aurreko jardunaldian, barriz, 0-1 irabazi eutsien Berriatukori. Holan ba lider dira ondino 52 puntugaz.

## MENDIA

**"Euskadiko enbaxadorea" saria Alex Txikonentzat**Erredakzioa

Gasherbrum I-en neguan bide barria zabaldutearen ahaleginen jarraituten dau Alex Txikon. Zezeilaren 26an, lehen kanpalekura (6.200m) heldu ziran lemoztarra, Carlos Suarez eta Nisar Hussein. Bigarren kanpalekua 7.000 m.tara ipiniko dabe, sano gatxa dan pareta batetik igo ostean. Gainera, eguraldiak ez dau lagunduten eta haizete gogorak dabiz sufriduten mendizaleak. Hori dala eta,

tontorrera heltzeako gura ebena baino denpora gehiago behar izango dabe.

Bitartean Bilbon, Txikon. Igaz egindako lana saritu eban Deiak zezeilaren 27an, "Euskadiko enbaxadorea" saria lemoztarrari emonaz. "Sari honen bidez Alexek igaz eginiko lan alpinistikoa aitortu gura da, non, gainera, 12.000 km egin zituan Gernikatik Pakistaneraino, gure kirola eta kultura zabaltzen igaro ebazan herrialde guztietatik" dinoe Alex Txikonen blogean.



Alex Txikon.

Argazkia: [www.blogseitb.com/alextxikon](http://www.blogseitb.com/alextxikon).

**ZEKUTZE**  
SATEYEA

Sabino Arana, 34  
48140 KORTIÑA - Bizkaia  
Tel: 94 631 52 83  
zekutze@zetubea@hotmail.com

**indar**  
instalazio elektrikoak

Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4  
48142 ARTEA - BIZKAIA  
t. 94 655 47 19  
indars@indars.es • www.indars.es

**CERRO ERAIKUNTZAK**

Behoko suetan, harrietan,  
azulejoetan... zditua.

Tel: 605 71 64 17  
Erreforma orokorrak

**Dia %**  
**PEDRO AUTOSERBITZU**

Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

*Los Chopos*  
neurritza egindako armairuak

Anda, Los Chopos, 35 (Nogue) Tel.: 94 430 40 94

**Esposizioa eta fabrika Lemoan**

Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44  
www.armariosloschopos.com

**FIXMI FODIDENDA** JAIONE IRAGORRI

LEHENDAKARI AGIRRE, 5  
48140 IGORRE BIZKAIA  
Tlf : 94 612 02 41  
Fax : 94 612 02 46  
fixmikopi@gmail.com

**axular**  
kultur elkarte

Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92  
axularke@gmail.com

**ekin s.a.**  
CONSTRUCCIONES

LAN PUBLIKOAK  
INDUSTRIAK  
GARRAIKAK  
UR SAREAK  
SANEAMENTSU SAREAK  
BASERI ETXAK  
BASOKO BIDEAK  
PABELLOAK  
URBANIZAZIOAK

Iturricz barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)  
Tel: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25  
e-posta: cekin@telefonica.net

*Pinturas Arratia*

Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**Jose Luis Corbacho**

**pintura lanak**

Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia

Tel: 94-673-70-87  
Tel: 609-79-40-54

MENDIA

# Arratiako andren II. Mendi Martxea

Martiaren 8ko ekitaldien barruan Dimako Andraizeak eta Ganzabalek Belatxikietara urteera antolatu dabe 11rako.

Erredakzioa

Parte hartzaileak goizeko 09:00etan batuko dira Dimako plazan edo Artaunen 09:15ean. Gero, 12:30ean pintxo jana egongo da parte hartzaileentzat Dimako plazan.

Arratiako andren I. Mendi Martxea Gorbeira izan zan igaz. Or-

duan, Areatzako Emakume Foroak antolatu eban eta hogeitanda inguruk hartu eban parte marxa haretan. Lagun giroan, ekitaldiak arrakasta handia izan eban eta, urtean urtean antolatuteko asmoa azaldu eban orduan Arratiako talde feministak eta andra taldeak.

Bigarren honetan be igazko giro ederrean eguna pasatea espero dabe antolatzailak.



Igaz egin zan I. Mendi Martxako argazkia.

PELOTEA

# Lemoako umetxoak eta Dimako gaztetxoak txapela lortu eban Arratia-Nerbioi E txapelketan

Erredakzioa

Sano giro pelotazale eta antolakuntza ezin hobea izan eban Orozkon jokatu zan Arratia-Nerbioi E txapelketaren finalak. Pelota eskolakoak txapel bi ekarri zituen Arratiara. Umetxoak kategorian Lemoa pelota eskolako Ibon Cantero eta Mikel Etxebarria Orozkoko bikoteari nagusitu jakien, txapela lortuz. Gaztetxoek kategorian, Dimako Oier Barrenetxeak eta Kimetz Zapikok eroran eban txapela Lemoako Unai Lejarreta eta Mikel Aurrekoetxeiri irabazi ostean.

Zeanuriko pelota eskolea azpitxapeldun geratu zan Aurreumetxoak kategorian eta Lemoakoa, Gaztetxoak eta Kadeteak kategorietan. Honeek izan ziran emoitzak:

Aurreumetxoak

Zeanuri: Jokin Goti - Maren Emaldi 09 - Orozko: Izei Artetxe-

loritz Arbaiza 18.

Umetxoak

Lemoa: Ibon Cantero-Mikel Etxebarria 18 - Orozko: Igor Iriondo-Asier Ibarrondo 12.

Umeak

Usansolo: Alvaro Ruiz-Asier Orue 07 - Orozko: Aingueru Olague-naga-Beniat Barbara 18.

Gaztetxoak

Dima: Oier Barrenetxea-Kimetz Zapiko 18 - Lemoa: Unai Lejarreta-Mikel Aurrekoetxea 03.

Kadeteak

Lemoa: Koldo Rekaorri-Oier Etxebarria 16 - Orozko: Natxo Pujana-Jon Lejarreta 22.

Gazteak

Arrigorriaga: Aritz Etxebarria-Jagoba Perez 13 - Usansolo: Ander Sedano-Gonzalo Ruiz 22.

RUGBYA

# Atsedena San Txismen

Ainhoa Duñabeitia

Astegoien librea izan dabe Arratiako Zekorrek. Igoera faseko bosgarren partidua jokatu eban Arastusteetako domekan. Zekorrek norgehiagokea galdu eban Irun RTren kontra, sailkapenean Zekorren azpitik doazenen kontra, hain zuzen be. Subertea ez zan etxeokaz egon eta 3-10 galdu eban entsegu egiteko aukera barik. Orain sailkapeneko erdiko postuetan dagoz. Hurrengo partidua hilaren 3an arrastiko 16:00etan izango da Getxo Artearen aurka Getxon.

Gaztetxoak barriz, azkeneko postuetan dagoz. Ez dabe partidurik irabazi. Riojan izan eban azkeneko partidua, eta aste biko atsedena daukie Zekortxuak.



Zekorrek partidu baten.

**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

**ELEKTROARGI ELEKTRIZITATEA**  
Instalazio elektrikoak • Aberiak  
Telekomunikazioak  
Material elektrikoak  
Juan de Auriagerra 1 Behea 48330 Lemoa  
Tfnua-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

**\* KIRRU \* ILEAPANDEGIA SOLARIUM**  
Roberto eta Rosana  
Sabino Arana, 38 bajo - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
• 94 631 92 00

publizitatea  
94 631 73 14 eta 649 979 115

**www.begitu.org**

Gugaz harremanetan ipinteko  
94 631 73 14 eta 649 979 112  
begitu@topagunea.com

**INCOESA**  
Tel. 94 631 32 75  
Faxa. 94 631 37 66  
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia

**Bar Restaurante Montero**  
Eguneko menua  
euskal sukaldaritza,  
sukaldaritza bolibiarra  
eta brasildarra  
Zelala 19 - Arantzazu - 619 903 653

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tfnua 649 86 95 36

Igorren  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Umeen moda 0-20 urte  
• Boboli • Ray • Aranda  
• AXR • Guesler • Arandaga  
• Giandale • Lefe • Hassana  
**sein**  
LEHENDAKARI AGIRRE, 23 • 946 319 296  
seinmoda@hotmail.com

**GARANTXE Autoeskola**  
TEORIA BUKARAZ ZEIN ERDARAZ  
Balmanki 41, A, RTX #  
Lehendakari Agirre 23  
Tfnua: 94 673 73 22  
48140 IGORRE (Bizkaia)  
garantxe@euskalnet.net

**L**  
**ARRATIA AUTOESKOLA**  
karnela euskaraz zein erdaraz  
Garbe, 10 - 48140 Igara (Bizkaia)  
Telefonoa 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83  
e-posta: urloa@euskalnet.net



## ZARZUELEA

**Pablo Sorozabelen *Katiuska* zarzuelea antzeztuko dabe Igorren****Erredakzioa**

Martiaren 16an, arrastiko zortziretan, Masa Coral del Ensanchek *Katiuska* zarzuelea antzeztuko dau Igorreko Kultur Etxean. Honegaz, hirugarren aldia da IKEn zarzuelea ikusteko aukerea dagoala. Igorreko Kultur Etxeak urtean behin, udabarian, ekarten dau zarzuelaren bat eta Lasarte Aretoa ia bete egiten da.

*Katiuska* zarzuelea, Errusiako Iraultzaren sasoiaren, printzesa errusiarra zala ez ekian neskaren eta sobietar komisario baten arteko amodiozko istorioa da. Bartzelonako Teatro Victorial-ean estreinatu zan 1931n, eta harrezkerotzik, ikusleen gogokoenetarikoen artean dago.

Igorreko Kultur Etxean ikusteko aukerea euki genduan lehenengo

zarzueleak, *El Caserik*, hain zuzen be, bete egin eban Lasarte Aretoa eta bigarrena ikustera be "berrehun personatik gora" joan zirala argitu deutso BEGITURI Janire Lopez Igorreko kultura teknikariak. *Katiuska* Pablo Sorozabal (1897-1988) donostiarraren obra honek be zaletuak gozatuarazo egingo dau zalakoan dago teknikaria. Gurean zarzuela zaletasun handia dago eta sasoi baten Areatzan talde bat egon zan zarzuelak antzezten zituana.

"Herriko opera" deitu izan dan genero hau oso gustukoa dabe jubiladuak, baina ez bakarrik. "Zarzuelea, operearen moduan, hunkigarria izaten da eta gauza asko sentiarazoten dauz" dino Janire Lopezek. Eta aldi baten zarzuelea antzezlekuetatik ia desagertu egin zan arren, "orain modan dago eta barriro indarra hartzean hasi da".

**Katiuska zarzuelea.**

## MUSIKEA

**Bidean Galduta taldearen maketearen aurkezpena Diman****Irati Urien**

Bidean Galduta taldeak, bere le-

henengo maketearen aurkezpena egingo dau hil honen 2an. Kontzertua Dimako gaztetxean izango da, 22:00etan. 2010eko udan sortu zan Arratiako musika talde honek, 2011ko urri bigarrena eta zemendia bitartean grabau eban diskoa. Sei kanta daukaz: Modua, Jakin Bariñ, Zure erantzuna, Galdera hori, Aurrepegi bi eta Mundu berri bat. Diman oster, abesti gehiago entzuteko aukerea emongo dabe. Gura dauanarentzat, kontzertuan bertan salgai egingo da maketea 5 euroren truke.

**Bidean Galduta.**

## IKASTAROA

**Ahozkotasuna eta ipuingintzako ikastaroa Diman**

Urteko lehenengo hiruhilekoan, Labayru Ikastegia ahozkotasuna lantzean dabil Diman

ikastaro baten. Irakaslea Nahia Aurrekoetxea dimoztarra da, Itzulpengintza eta Interpretazioan lizentziaduna. Ikastaroa IRALeko programan sartzean da eta irakasleai dago zuzenduta.

Dimako eskolan emoten dira saioak. Nahia Aurrekoetxeak BEGITUREN itaunak erantzun ditu.

**Erredakzioa****Zergaitik ahozkotasuna eta ipuingintza? Zelan lantzean dira horreek?**

Dimako eskolea Labayrugaz hartu-emonetan parau zalako batez be, eta hori landu gura ebala esan euskulako. Eskaera hori eta IRALek eskeintzen dituan ikastaroak kontuan hartuta antolatatu dogu ikastaroa.

Ikastaroa zati bitan banandu dogu: batetik, mintzamen-lanketea, oro har; eta, bestetik, ipuingintza. Baina, azken baten, biak alkarrerik oso lotuta dagoz. Ikastaroa guztiz praktikoa da.

Lehenengo zatian (mintzamen-lanketea), batez be berba behar dan moduan egiteko baliagarria dan edukia ikusten gabiz: Euskaltzaindiak ahozkotasunerako emon dauzan edo ahozkotasunean aplikatu ahal diran arauak, alkarrizketak eta erregistroak, diskurso motak (azalpena, deskripzioa, argudioa eta eretxia...), erderakadak eta diskursorako lagungarri diran bes-telakoak. Atal bakotxean azalpen

txikiren bat emoten dogu, baina oro har anketen bidez lantzean doguz edukiak; ahoz, entzungaien bitartez edo idatziz. Ikastaroa ikasleen eguneroko behararen eskakizunetara eta normalean euskerea erabiltzen daben erregistroetara egokituden ahalegindu gara eta, hori dala-eta, euskera batua eta bizkaiera buz-tartu doguz.

Bigarren zatian (ipuingintza), ipuinak zelan sortu eta kontatu ikusiko dogu. Ikasleak jakin badakie lehendik be ipuinak egiten, baina beste teknika eta baliabide batzuk emongo deutseguz, lehendik daukien ezagutzea osotuteko. Ipuin-kontaktak saioaren bat ikusiko dogu, eta egin be egin beharko dabe ikasleak.

**IRALE programan dago ikastaroa, irakasleai zuzenduta. Badago asmorik hori publiko zabalarik emoteko?**

Labayruk ikastaro hori IRALE programearen barruan eskeintzen dau, baina beste erakunderen baten interesa agertuko baleu ez leu-ke arazorik eukiko emoteko. Izan

be, hainbat ikastaro berezi emoten doguz bai IRALE programaren barruan, bai beste leku batzuetan. Labayruk normalean ez dauz holango ikastaroak berak eskeintzen, gatx izaten dalako era horretako ikastaroetan gitxiengo ikasle-kopuruak izena emotea.

**Zein balorazino egiten dozu?**

Ikastaroaren erdia egin dogu, gitxi-gorabehera, baina balorazino positiboa egingo neuke. Ikasleak oso parte-hartze handia daukie eskole-tan, egin beharrekoa egiteko prest egoten dira beti, lotsa alde batera itxita, eta hori eskertzekoa da. Helburua da, azken baten, euskerea lantzea (bizkaiera, baina baita batua be), kanpoko eraginaren ondorioz egiten doguzan hanka-sartzeak zuzentzea eta euskereak, bereak daukazan berbak, esapideak eta egiturak berreskuratzea, eta euskeraren ganean gehiago ikatea; eta hori guztiori, modu atseginean. Eskolen erdiak baino emon ez doguzan arren, helburuak apurka-apurka betetzen gabiz, eta abiadura onean doa ikastaroa.

## DOKUMENTALA

**Herriko Emakume Foroaren ekimenez, Areatzako andren historia eta bizi esperientzien dokumentala egingo da****Erredakzioa**

Areatzako historia eta bizitza kultural, sozial, ekonomiko edota politikoan andrak egin daben ekarpena berreskuratzea eta ezagutzera emotea gura dau Areatzako Emakume Foroak. Hori dala eta, ikusentzunezko eta genero arloan aditua dan andra baten laguntzaz, herriko hainbat emakumerik alkarrizketak eta grabazioak egingo jakez dokumental bat egiteko.

Dokumentalaren helburua Areatzako andren ekarpena berreskuratzea da. "Mendeetan, andrak baztertuak izan dira historia ofizialean. Egin dituen ekarpenak, bai eremu publikoan bai pribatuan, isilarazo

egin dira" dino Sara Gutierrez Areatzako Emakume Foroak.

Ikerketa lan hau egiteko informazioa, orain urte batzuk egindako "Areatzako emakumeak" argazki erakusketan oinarrituta dago, Bizkaiko Foru Aldundiko artxibo histo-

riko eta Foroko taldekideen bitartez lortutako informazioa, hain zuzen be. Emakunde eta Areatzako Udalak emon dabe diru laguntzea dokumentala egiteko.

**Herritarren laguntzea behar**

"Herritarren laguntzea behar dogu, ahal danik eta informazio, kontaktuz, argazki... gehien lortzeako. Urte honetan zehar egingo da dokumentala eta edozelango ekarpena egiteko Foroko Maite Artabe, Kari Basozabal, Idoia Ruiz, Maite Madariaga edo Sara Gutierrezegaz jarri kontaktoan, mesedez" dino Gutierrezek.

**Areatzako plaza.**

## SAGARDOTEGIA

### Areatzako Laminetxe Gaztetxetik sagardotegira

#### Erredakzioa

Sagardotegi sasoi hasi dan honetan Areatzako Fraka-zuri Gazte Asanbladakoak dira lehenak urteera antolatuten. Hainbat urte daroz billaroztarrak urteera hau egiten eta aurtengoan martiaren 10ean izango da. Hernaniko Iparragirre sagardotegian izango da bazkaria. Areatzatik goizeko 11:00etan aterako dira eta buelta gaueko 00:30ean izango da. Izena emoteko telefono honekara deitu behar da: 696 366 352 eta 629 081 517.



## LEHIAKETEAK

### Materia Gris Arratiako banda EhrZ lehiaketan finalista



#### Erredakzioa

Euskal Herria Zuzenean alkar-teak antolatutako EhrZ musika lehiaketan Materia Gris bandak parte hartzean dau beste 64 talde gazte batera, eta 12 finalisten artean dago. Martiaren 9ra arte bozkatu ahal da publikoaren talde gustukoena aukeratzeko [http://ehz-festibala.eu/ehz#musika\\_tb](http://ehz-festibala.eu/ehz#musika_tb) helbide elektronikoan. Hau idatzi dogun momentuan, Materia Gris zan boto gehien eukazan taldea.

Festibalaz gain, EHZ alkar-teak EhrZ musika lehiaketea antolatu-tzen dau urtero, "musikak aplikatu" lemagaz, Euskal Herriko taldeak bultzatzeko eta musika sorkuntzeari ikusgarritasuna emateko.

## ARRATIAKO MUSIKA ESKOLA

### Arratiako Musika Eskolako ikasle ohiak kontzertua eskeiniko dabe Igorren

#### Erredakzioa

Arratiako Musika Eskolak bere 25. urteurrena ospatuteko hainbat ekitaldi antolatu ditu. Hurrengo, martiaren 3ko kontzertua izango da. Kontzertua, Igorren Kultur Etxean arrastiko zazpiretan izango da eta han, urte honeetan zehar Arratiako Musika Eskolako promozino desbardinetea ikasle izandakoak errepertorio bikaina eskeiniko dabe. Kontzertua baino lehen, musika eskolako ikasle ohiak kalejireia egingo dabe Igorren.

Hogei musikari baino gehiagori entzuteko aukerea izango da kontzertu honetan. Beñat Barroetak eta Ane Olibaresek biolina joko dabe; Amagoia Olibaresek, Dorleta Gortazarrek, Iban Agirregoikoak, Esti Garciak, Ane Goienetek eta Miriam de Pradok pianoa; June Egileorrek, Itsaso Iturriozek, Maria Rodriguezek, Maitane Ipiñazarrek eta Iraia Atxutegik, trikitixea; Aitziber Milikuak eta Mayra Gallenek flautea; Miren Madariagak txistu-tua, eta Jose Ramon Olabarrrik fiskornoa. Akordeoia be ez dira faltako. Amaitzeko, Materia Gris rock taldeak Paul Desmond-en *Take five* kantua joko dau. Talde-

ko partaide guztiak Arratiako Musika Eskolako ikasleak izan ziran. Kontzertu honetaz gainera, mende laurdena ospatuteko

aprilaren 28an beste kontzertu bat egitea, eta liburu bat argitaratzea aurreikusita daukie Arratiako Musika Eskolakoak.



## DUNBA

### Kanporamartxo



Umeak txorizoa erretzen.

#### Zeanuriko ikastetxeko 2. zikloko ikasleak

Zezeilaren 10ean, barikua, kanporamartxo egin genduan. Kanporamartxo Arratiako ohitura bat da eta Garizuman egiten da, Aste Santua

baino lehenago.

Gurasoak ogia ekarri eben eta eskolako ikasleak txorizoa.

Goizean Jabi maisua gelaz gela joan zan txorizoa batzean.

Arrastian Jabik eta guraso batzuek sua piztu eben.

Hiru t'erdietan Lehen Hezkuntzakoak patiora joan ginan eta txorizoa burduntzian ipini genduan, norberak bere txorizoa erretzeko. Erre ondoren ogian sartu eta bapobapo jarri ginan.

Jan ostean danak olgetara joan ziran, baina batzuek gustua hartu

eutsien eta bokata bat baino gehiagotan jan eben.

Geroago Haur Hezkuntzakoak jaitsi ziran eta txorizoa parrilan erre eben.

Oso ondo pasau genduan lehengo aldia izan zalako geuk txorizoa burduntzian erretzen genduan.



### Ikasleak Artziniegako museoan

Zezeilaren 7an, bigarren eta hirugarren zikloko Artziniegako museoan joan ginan. Museoan antxinako lanbideak eta hareek erabilten zituen tresnak ikusi genduzan. Gauza batzuk ez dirala askorik aldatu ikusi genduan: txorizoa eta odolosteak egiteko tresna bardin antzekoak erabilten zituen.

Gauza harrigarri batzuk be ikusi genduzan: kortan untxi txinatarrak egozan, hau da, ule pilo bat daukienak, burdindegian hauspo erraldoi bat egoan bi metro ingurukoa, bedar bategaz (lihoa) oihala egiten eben eta lehengo tabernetan danetik egoan: janaria, jaboia, edaria,

botoiak... gaur egungo "Corte Ingles" a ziran.

Oso ondo pasau genduan eta gauza asko ikasi be bai.



Zeanuriko ikasleak museoan.

## AGENDEA

## MARTIAK 2

## DIMA

19:30ean, "Diman etxean gura doguz" presoen aldeko konzentrazioa.

## LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak eski urteerea hilaren 4ra arte. Luz Ardiden.

## MARTIAK 3

## AREATZA

08:30ean, mendi urteerea Belaustegi-Ukulugorta-Araneko harria-Oderiaga-Belaustegi. Parkean.

## MARTIAK 4

## IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Alvin y las ardillas 3*. 19:30ean, zinea *Sherlock Holmes, juego de sombras* Lasarte Aretoan.

## MARTIAK 5

## IGORRE

Euskadi-Kuba alkartearen *Emakume baserriarrak* argazki erakusketa.

## MARTIAK 6

## LEMOA

19:30ean, jubiladu etxeko aretoan Nekane Juradoren berbaldia "Euskal Emakumeek ekonomian izan duten ekarpen izkutua".

## MARTIAK 7

## ARTEA

16:00etan, Euskal Herriko andra baserriarren topaketak Ekumuseoan.

18:00etan, eztabaida-meriendea. Hizlaria Loredi Salegi "*¿Realmente el trabajo reproductivo no es un trabajo productivo?*" Kultur Etxean.

## IGORRE

19:00etan, Isabel Gonzalo Etxalde taldekoaren berbaldia "Europako Nekazal Politikak zelan eragiten deutsee andra baserriarrai?" Lasarte Aretoan.



## Printzea eta ahatea Igorreko Kultur Etxean hilaren 2an

Martiaren 2an arrastiko 18:00etan izango da antzezlan. Istorio txikerra da hau; hain txikerra, ze gaztelu bat, arbola bat eta etxe bat baino ez dituan behar kontatua izateko. Baina istorio txiker honek oso gauza handiez egiten dau berba. Bertan, personaje txiker bi ohartuko dira ez dagoala jolasteko nonor eukitea baino gauza dibertigarriagorik eta ez dagoala lagun on bat eukitea langorik.

"Haize barria dabil, udagoieneko haizea, piku melatuen eta sagar pastelaren usaina dakarrena" dinoe.

## MARTIAK 8

## ARTEA

10:00etan, Euskal Herriko andra baserriarren lehen topaketak.

## BEDIA

19:00etan, txokolataa eskoletan, berbagia: Bediako andren bizimodua.

## IGORRE

19:00etan, Emakume Langileen Nazinoarteko Eguna. Kultur Etxean

aurrean konzentrazioa.

## MARTIAK 9

## AREATZA

19:00etan, Marian Verderen berbaldia "*Reivindicaciones de las mujeres trabajadoras de Firestone*" Udal Aretoan.

Ondoren, kopautua.

## DIMA

19:00etan, filma *En un lugar del corazon*.

21:00etan, poteoa plazatik. 21:30ean, afaria Artaungo Aspurun eta jantzaldia DJ Xaiborregaz.

## ZEANURI

21:30ean, andren afaria Mazalak antolatuta.

## MARTIAK 10

## AREATZA

23:00etan Jabier Mañon umorista Bixer tabernan.

## IGORRE

18:00etan, Euskera Planak antolatutako Mihiluze Txapelketearen aurkezpen ekitaldia Lasarte Aretoan.

22:00etan, zinea *La fuente de las mujeres* Lasarte Aretoan.

## LEMOA

Ganzabaleko Oroitze Eguna. Lemoa-Artaun. Urtemondo (789 m).

## UBIDE

Amexier Mendi taldeak antolatuta, Deba-Zumaia itsasertzeko ibilbidea. Bazkaria sagardotegian.

## MARTIAK 11

## ARRATIA

09:00etan Andren II. Mendi Martxea Diman.

## BEDIA

Ganguren antolatuta urteerea Ekaingo kobetara.

## IGORRE

19:30ean, zinea *La fuente de las mujeres* Lasarte Aretoan.

## ZEBERIO

Austari Mendi taldeak urteerea Alto Campoo-Cuchillon-Tres Mares.

## MARTIAK 12

## BEDIA

Uda gazterako izen emote epea zabalduen da hilaren 30era arte. Multiabentura Huescako Pirineotan, garagarriaren 16tik 22ra, 13-17 urte bitarteko gazteboentzat.

17:00etatik 20:00ak arte, Txiki-txokorako izen emote epea zabalduen da hilaren 30era arte liburutegian. Jolasak eta tailerrak garagarriaren 2tik 13ra, 3-4-5 urteko umeentzat.

17:00etatik 20:00ak arte, udalekuetarako izen emote epea zabalduen da hilaren 30era arte liburutegian. Osterak, jolasak, olinpiadak, tailerrak... garagarriaren 2tik 13ra, 6 eta 12 urte bitarteko umeentzat.

## MARTIAK 14

## BEDIA

19:00etan, Bediako Irakurle Klubean Harkaitz Cano *Twist*.

## IRAGARKI LABURRAK

## SALDU

## ROMER DUO PLUS-ISOFIX SALGAI

Grupo 1 (9/18 Kg). 2. eskuko autorako umeen segurtasun aulkia. Grisa/baltza. 200 €. Egoera oso ona (merkaduan 400 €). 626 385 581.

## DANERIK

## AURRESKUA IKASI GURA DOT

Aurreskuaren Kontrapasa ikasteko eskolak hartzea gura dodaz. Zapatu arrasti edo domekan izan beharko litzateke. Nonor eskolak emoteko prest badago, honako telefono-zenbaki honetara deitzea dauka: 659 059 194.

## ESKOLAK EMOTEN DODAZ

DBHko, Batxilergoko (ikasgai guztiak) eta Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoko eskolak emoten dira. Deitu 659 729 398 telefonora.

## SENEGAL BIZIKLETAZ ASTE SANTUAN

Pedaleatzen Afrika Beltza ezagutzeko. Alforjakaz zikloturismoan zaleak

diranentzako. Martiaren 31tik apirilaren 15era. Eguneko 45 km. Programa aktiboak 1.250 €. Hegaldia norberaren kontura. Info+: xauenbidaia@gmail.com edo www.xauenbidaia.com.

## LOKALA ALOKATZEN DOT

Lonja edo lokal bat alokatzen dot Diman. Deitu telefono honetara 616 813 747.

## GARBIKETAK

Etxeak, lokalak, portaleak, bulegoak... garbitan dodaz. Etxeko beharrak egin eta adinekoak be zaintzean dodaz. Telefonoa 666 238 081 (Cristina).

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin edo behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com-era. Mezuak doan dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

## Zenbaki honetako saridunak:

1

Igorreko Udalak emondako bina sarrera *Printzea eta ahatea* antzezlanerako.

Caridad Basozabal (Areatza)  
Xabier Uriarte (Igorre)



2

Igorreko Udalak emondako Gontzal Mendibilen CD bana.


Maitane Olatz Bilbao (Igorre)  
Mari Angeles Larraondo (Zeberio)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. Ehun zenbaki eta ehundaka lagun.

## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA

- 1.- Esne-zopak hartzeako ontzi.
- 2.- Sufrea. Fruta mota bat.
- 3.- Oinarrizko lau odol taldeetako bat.
- 4.- Inor barik. Uranioa.
- 5.- Modua. Marokoko jaia, pazkoa.
- 6.- Berrogeta hamar erromatar.
- 7.- Langile Abertzaleen Batzordea. Edabe garbi.
- 8.- Emakumeen izena. Bokala.
- 9.- Ezinean.

### GOITIK BEHERA

- 1.- Tripea. Neoaia.
- 2.- Konsonantea.
- 3.- Amerizioa. Ehiztari.
- 4.- Oihala.
- 5.- Gizonezkoen izena.
- 6.- Erreskadan.
- 7.- Min daukagunean dinogu.
- 8.- Garraio, lorreta. Helmuga, jomuga.
- 9.- Konsonantea.
- 7.- Bike. Madari.



Topau zazpi figura geometrikoren izenak.

S	A	D	E	L	O	G	O	N	A
A	O	N	O	G	A	K	E	D	I
U	S	A	T	O	R	E	T	Z	A
P	A	G	A	Z	E	L	R	O	Z
O	A	U	L	U	K	R	I	Z	B
K	A	R	H	U	N	Z	A	L	A
E	G	R	E	S	E	U	N	K	E
G	O	Z	X	P	A	R	G	E	A
O	S	P	A	L	I	D	E	Z	O
F	E	R	G	I	M	A	L	E	N
O	T	R	O	S	K	A	U	B	E
T	K	O	N	O	A	U	A	H	L
X	A	H	O	G	I	M	A	Z	U
O	J	T	A	S	M	O	I	L	E
N	O	N	O	G	E	N	O	D	A

# AKMIKO

Zorrozkiilo



*Ametzola*  
**Landetxea**  
Ametzola 1-1  
48499 Zeberio  
629 429 870  
www.ametzola.net

**bbk** =

**HERRIKO BENTA**  
HOSTAL  
HERRIKO PLAZA  
48142 ARTEA (Bokala)  
Tel. 94 631 72 56

Arratia, Ubide eta Zeberioko euskera eta kulturearen alde

**Hamabostero Begitu zure etxean eta Arratia inguruko Hiztegia doban**

**Egin zaituzte zu be Begitu-lagun**

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ataratako produktuak.  
Hamabostean behin, sariketa-zozketan parte hartuko dozu.

Izen Abizenak  
  
 Helbidea  
  
 Telefonoa  E-posta   
 Kontu korronteko 20 digitoak  
  
 Urteko kuota aukeratu:  
 35€  55€  75€

Moztu eta bidali helbide honetara:  
Zertu Kultur Elkarte, Herriko plaza 24, 48142 Artea

## CLAUDIA SANTOS

## "Ez daukat interpretazinora dediketako asmorik, baina ez deusadaz atea zarratuten"

Claudia Santos Zeberion bizi da, 18 urte ditu eta Arratia Institutuan batxilergoko bigarren maila ikasten dago. Aktoera be bada Claudia, *Egunon Printzesa!* filman protagonistaren papela jokatuten dau Zeberioakoak.

Beragaz egon da orainoan BEGITU, zinea eta interpretazioaren gainean berba egiten, baina baita neska eta mutilen arteko hartu-emonen gainean. Izan be, filman erakusten diran neskaren kontrola mutilaren partetik, eta neskak mutilen nahietara moldatzea errealidadean be gertatzen da.

## Erredakzioa

**Aktore moduan zure lehenengo lana izan zan *Egunon Printzesa!* filman egindakoa? Zelango esperientzia izan zan?**

Kamararen aurrean modu serioan agertzen nintzan lehen aldia izan zan *Egunon Printzesa!* filman grabaketea, hamar urtegeaz Getxoko Antzerki Eskolan egin genduan antzezlan alde batera itxiz. Laburmetraien grabaketan izan dodan esperientzia sano positiboa izan da. Hasiera baten, ez neban egin gura, baina egun batzuk pasa ondoren bildur guztia aurre egin eta lanean hasi ginan.

**Aurrerantzean interpretazinora dediketako asmorik? Zinea ala antzerkia gurago dozu? Zer ikasi gura dozu?**

Ez daukat interpretazinora dediketako asmorik, baina ez deusadaz atea zarratuten. Nok daki hemendik hamar urtera non eta zer egiten egongo nagan. Zinean gurago dot antzerkian baino, aukeratzeko gehiago dago eta.

Publizitatea eta Harreman Publikoak ikasteko asmoa daukat.

**Jarraituten dozuz Oscar sariak eta zinean emoten diran beste sariak? Zinean Euskal Herriko jente askok egiten dau behar: zuzendari, aktore, musikagile, animazio zein**

**dokumental egileak... Zer deritxazu?**

Ez dot telebista sarritan ikusten baina txitean-pitean ikusten daz zineari buruzko albisteak eta entretenidua irudituten jataz. Ongi deritxat jenteak bizimodua zinetik ateratea; beste edozein lan baten modukoa da.

**Zinera joaten zara? Noz eta nora? Ze zine mota, ze pelikula gustetan jatzuz gehien?**

Gustuko dot zinera joatea baina badira hilabete batzuk ez nazala joan. Normalean Bilbora joaten naz, baina oso gitxitan; gurago dot pelikulak ordenagailuan ikusi. Bildurrezko eta suspenseko filmak daukadaz gehien gogoko baina amodiozkoak be gustetan jataz; danerik ikusten dot.

**Eta antzerkian joaten zara?**

Txikitin antzerkian sarritan joaten nintzan, baina nagusitan behin baino ez naz joan. Ez dut oso gogoko, baina gogoko dodan antzezlan bat ikusteko aukera izan ezker gogoz joango nintzateke.

***Egun on Printzesa!* pelikulan andrakanako biolentzia sotil bat agertzen da: kontrola. Uste dozu egoera hori zabaldua dagoala gazteen artean? Eta uste dozu pelikulea horren gaineko hausnarketarako tresna bat dala?**

Zoritxarrez bai. Nahiz eta bigarren maila baten egon eta sarritan ezkutuan, bikotekideagazko kon-

trola oso zabaldua dago gazteen artean. Eta arazoa da ez dogula arazo larritzat jotzen. Laburmetraiak salatu egiten dau egoera ezkutu hori, guretzat "normala" dana.

**Gaur egungo neska gazteak zenbateko presinoa jasaten dabe mutil-laguna izateko? Gazteen artean hobeto ikusita dagoz mutil-laguna daukien lagunakaz eta euren kabuz ibiltzen diranak baino? Ez da nesken autonomia bultzatzen?**

Presino guztia gizartearengandik dator. Pelikulak eta liburuak maitasun idealaren bila bultzatzen gaitue eta hori errealidadea errotan saiatzen gara. Ez dot uste txarto dagoanik baina errealidadea eta fikzioa desbardintatzen jakitea ezinbestekoa da. Ez dot uste persona batek bikotekidea ez

izateagaitik txarrago ikusten dogunik. Bestetik, bikotekidea izateak ez dau esan gura autonomia galtzean danik; bikotekidea izan daikezu eta bardin-bardin zeure kabuz moldatu.

**Zein da zure balorazioa bardintasunari jagokonean gazteen bizimoduan?**

Uste dot gaur egungo gizarteak nahiko bardin tratetan dituala gizonen artean zein andrazkoak, baina badira hainbat esparru landu behar diranak.

**Ze uste dozu egin beharko litzatekela gazteen arteko desbardintasun egoerak gainditzeko?**

Bardintasunaren aldeko ekintzak eta proiektuak zabaltzen jarraitzea arma egokiena dala uste dot desbardintasun guztia aurre egiteko. Eta umei txikitik balore honek irakastea be ezinbestekoa da.





# ALKIZABAL

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA  
Amorebieta-Lemoa bidea  
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26  
48330 Lemoa (Bizkaia)

www.alkizabal.net  
alkizabal@alkizabal.net

Zabalik 07:00 - 19:00











· Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.

· Garraio zerbitzua.

**KÄRCHER**

Banatzaile ofiziala